



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 26an

7 ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:

—Berriozarko Udalarari buruzko fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).

G Saila:**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA****Berriozarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urriaren 16an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak Berriozarko Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2000ko urriaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Berriozarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina**AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (2. or.).
- III. Norainokoa (3. or.).
- IV. Iritzia (3. or.).
- V. Finantzen egoera-orriak (4. or.).
- VI. Berriozarko Udalari buruzko iruzkinak, ondo-riok eta gomendioak (9. or.).
 - VI.1. 1999ko aurrekontuaren betetzeari buruzko iruzkin orokorrak (9. or.).
 - VI.2. Finantza-egoera 1999ko abenduaren 31n (11. or.).
 - VI.3. Gorabeherak (12. or.).
 - VI.4. Kontratazioa (12. or.).
 - VI.5. Kudeaketari buruzko bestelako gomendioak (13. or.).
 - VI.6. Hirigintza (14. or.).
- VII. Erakunde Autonomoak (15. or.).
- I. **eranskina.** Udalaren organigrama, 1999ko abenduaren 31n (16. or.).
- II. **eranskina.** Erabilitako adierazleen definizioa (17. or.).

I. SARRERA

Berriozarko Udala Iruñerrian dago, 1991ean bereizi zen Antsoaingo Zendeatik eta 5.725 biztanle inguru ditu, 1999ko abenduaren 31n.

Bere jarduera burutzeko, honako erakunde autonomo hauek dauzka: Kirol eta Kultura Patronatua, eta Musika Eskola. Bien kontuak Udalekotean sarturik daude.

Osoko Bilkurak hartutako erabaki baten bitartez, erakunde autonomo hauek aurrekontu bakar batean kudeatzen dira Udalerako, eta bakoitzari ezarri zaion kode organikoak bereizten ditu.

Bestalde, Iruñerriko Mankomunitatearen barruan ere badago, zeinak bere gain hartzen baititu uraren ziklo integrala eta hiri-hondakin solidoen kudeaketa, tratamendua eta garraioa.

Horrez gain, Berriozarko Udalak honako elkar-te eta mankomunitate hauetako kide da:

Antsoain, Berribeiti eta Berriozarko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.

Etxebizitzak Zaharberritzeko Eskualdeko Bulegoa.

Udalaren eta haren erakunde autonomoen 1999ko zifrarik garrantzitsuenak honako taula honetan adierazten dira:

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak (pezetak, milioitan)	Aitorturiko eskubideak (pezetak, milioitan)	99-12-31ko langileria
Udala	784	773	74

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Berriozarko Udalaren eta haren erakunde autonomoen 1999ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko-

finantzarioaren fiskalizazioa egin dugu. Halaber, ekitaldi horretako gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen betetzea ere fiskalizatu dugu.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: aurretik aipaturiko legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuak, administrazio-kontratazioari nahiz hirigintza-kudeaketari buruzko arauak eta Nafarroako toki enteei orokorki aplikatzekoak zaizkien gainontzeko arauak.

Kontabilitate eta aurrekontu gaietako araubide juridikoa Nafarroako Toki Administrazioarentzako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu egiturari eta kontabilitateari buruzko 1998ko iraileko 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuetan ezartzen da. Halere, 1999an araubide hori aplikatzea borondatezkoa zen, eta nahitaezko bilakatuko zen 2000ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

a) Berriozarko Udalaren eta haren erakunde autonomoen 1999ko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 1999ko abenduaren 31n zegoen ondare-egoera agertzea, aplikatzekoak zaizkion kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari lotua egon ote den.

d) Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantza-egoera 1999ko abenduaren 31n.

III. NORAINOKOA

Bere jarduketara-programari jarraituz, Kontuen Ganbarak Berriozarko Udalaren (hemendik aurrera, Udala) eta haren erakunde autonomoen 1999ko ekitaldiko fiskalizazioa egin du.

Udalak kontabilitate publikoari buruzko plan orokorra ezarrita dauka, Toki Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrari jarraikiz. Plan hori egokitu da irailaren 21eko 271/1998 Foru Dekretura –Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontu egituraren alorrean garatzen duen horretara–, eta Nafarroako Toki Administrazioarako Kontabilitate Jarraibide Orokorra onetsi zuen irailaren 21eko 272/1998 Foru Dekretura.

Beraz, eginiko lanak haxe izan du arretagai: diru-sarrera eta gastuei buruzko kapitulu ekonomikoak eta ondare-masak berrikustea, eta antola-

menduari, kontabilitateari eta barne-kontrolari dagozkion hainbat puntu aztertzea.

Hirigintzari dagokionez, gure lanaren arretagai nagusia arau subsidiarioen betetzearen azterketa izan da, haren aldaketak aztertuz eta aurreikuspenak noraino bete diren ikertuz.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsiriko fiskalizazio-printzipio eta -arauak jarraituz burutu dugu lana. Era berean, egoeraren arabera beharrezkotzat jo ditugun frogak guztiak aplikatu ditugu.

Txostenean daude Udalaren eta haren erakunde autonomoen antolamendua, barne-kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak.

Azterketa lana 2000ko maiatzean egin dugu.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak ematen dizkiegu Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileei.

IV. IRITZIA

Egindako fiskalizazioaren esparruan, Berriozarko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako 1999ko ekitaldiko egoera-orri finantzarioak aztertu ditugu. Horiek prestatzeko erantzukizuna Udalarena da, eta txosten honen V. atalean ageri dira, laburbilduta.

Berrikuspenera egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta -prozedurak aplikatu dira.

Eginiko berrikuspeneraren ondorio gisa, honako iritzia hau agertuko dugu:

IV.1. 1999ko AURREKONTUAREN LIDIKAZIO-ARI DAGOKIONEZ

Erantsi dugun 1999ko aurrekontuaren likidazio egoerak behar bezala agertzen ditu, fiskalizatutako ekitaldian Udalak egindako eragiketa guztiak.

IV.2. 1999KO ABENDUAREN 31ko ONDARE-EGOERAREN AGERPENA

1999ko abenduaren 31ko egoeraren balantzeak Udalaren ondare-egoera behar bezala agertzen du, bi salbuespenekin: ibilgetua osatzen duten saldoen egokitasun edo fidagarritasun eza, eta inbentarioa –1995ekoa–, gaurkotu gabe baitago.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz egin da.

IV.4. 1999ko ABENDUAREN 31ko EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Berriozarko Udalak finantza egoera erosoak erakusten zuen 1999ko abenduaren 31n: diruzaintzako gerakin garrantzitsua –233 milioikoa–, aurrezpen garbiko ehuneko altua –ehuneko 16– eta 244 milioi pezetako epe luzerako zorra.

Laburbilduz, **ondorio orokor gisa** esan dezakegu 1999ko abenduaren 31n Udalaren egoera ona dela. Halere, zalantzak daude etorkizunean izan dezakeen kaudimenaz, berriozarko udalerriak ez baitu egun lurzoru urbanizagarririk, eta beraz, aurrerago baliabideak sortzeko gaitasuna oso mugaturik egonen da. Dirusarrera arruntak gastu arruntak baino txikiagoak dira eta horrek, hala iranez gero, defizit jarraitua ekar lezake.

Berrizarko populazioak gora egingen du hirigintza aldetik egun dagoen garapen handia dela-eta. Alabaina, gaurko egoera ona izanik ere, baliabide gehiago sortzeko gaitasun mugatua du, lehen esan dugun bezala.

V. FINANTZEN EGOERA-ORRIAK

Jarraian, Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantzei buruzko egoera-orriak aurkezten ditugu. Txostena baliagarriagoa izan dadin, azalpena honako hauekara mugatuko dugu:

- Udalaren gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera.
- Udalaren gastuen aurrekontuaren likidazioa, sailkapen ekonomiko-funtzionalaren arabera.
- Udalaren 1999ko abenduaren 31ko egoerari buruzko balantzea.
- Udalaren 1999ko abenduaren 31ko diruzaintza-gerakina.

Berriozarko Udala, 1999
Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea

Kap.	Hasierako aurreikuspena (Pzta., milakotan)	Alda-ketak (Pzta., milakotan)	Behin betiko aurreikuspena (Pzta., milakotan)	Aitorituriko eskubideak (Pzta., milakotan)	Aitorituriko eskubideak (Euroak, milakotan)	Kobratuta (Pzta., milakotan)	Kobratzeke (Pzta., milakotan)	Betezearen %	Aitorituriko %
1	108.585	-	108.585	127.319	765	115.117	12.202	117	16
2	182.000	-	182.000	135.619	815	134.773	846	75	18
3	108.971	-	108.971	103.743	624	96.225	7.518	95	13
4	239.408	363	239.771	254.244	1.528	242.740	11.504	106	33
5	2.700	-	2.700	4.295	26	3.595	700	159	1
7	300.610	66.400	367.010	148.107	890	137.018	11.089	40	19
8	500	168.810	169.310	-	-	-	-	-	-
Dirusarrerak, guztira	942.774	235.573	1.178.347	773.327	4.648	729.468	43.859	66	100

Gastuen aurrekontuaren betetzea

Kap.	Hasierako aurreikuspena (Pzta., milakotan)	Alda-ketak (Pzta., milakotan)	Behin betiko aurreikuspena (Pzta., milakotan)	Aitorituriko betebeharrak (Pzta., milakotan)	Aitorituriko betebeharrak (Euroak, milakotan)	Ordainduta (Pzta., milakotan)	Ordaintzeke (Pzta., milakotan)	Betezearen %	Aitorituriko %
1	321.160	(6.790)	314.370	295.885	1.778	291.319	4.566	94	38
2	159.080	6.005	165.085	152.814	918	149.242	3.572	98	19
3	11.474	-	11.474	7.444	45	7.444	50	65	1
4	50.135	1.319	51.454	45.251	272	32.424	12.827	88	6
6	369.725	235.039	604.764	258.536	1.554	255.451	3.085	48	33
8	500	-	500	-	-	-	-	-	-
9	30.700	-	30.700	24.282	146	24.282	-	-	3
Gastuak, guztira	942.774	235.573	1.178.347	784.212	4.713	760.162	24.100	67	100

Berriozarko Udala
1999ko aurrekontuaren betetzea, kode funtzional/ekonomikoaren ikuspegitik
(pezetak, milakotan)

Funtzio-nala	Deskribapena	Langileria-gastuak	Ondasun arruntak eta zerbitzuak	Finantza-gastuak	Transferentzia arruntak	Inbertsio errealak	Finantza-pasiboak	Obligazioak, guztira	Guztizk. gainera %
01	Zor publikoa	-	-	7.407	-	-	24.282	31.689	4
11	Gobernu-organok	-	3.604	-	-	-	-	3.604	1
12	Administrazio orokorra	25.318	35.762	-	225	5.219	-	66.524	8
22	Segurtasun eta babes zibila	36.978	2.269	-	-	990	-	40.237	5
31	Segurtasun eta gizarte-babesa	45.316	4.173	-	19.246	128	-	68.863	9
32	Gizarte-sustapena	4.154	3.878	-	1.299	-	-	9.331	1
41	Osasuna	5.337	3.095	-	-	-	-	8.432	1
42	Hezkuntza	54.712	23.467	-	2.887	985	-	82.051	10
43	Etxebizitza eta Hirigintza	68.888	19.399	-	199	234.203	-	322.689	41
44	Komunitate-ongizatea	15.263	3.484	-	2.254	8.500	-	29.501	4
45	Kultura eta kirola	22.330	50.811	-	13.491	8.511	-	95.143	12
46	Bestelako komunitate- eta gizarte-zerb.	-	-	-	5.650	-	-	5.650	1
61	Araupetze ekonomikoa	17.589	2.872	37	-	-	-	20.498	3
	Guztira	295.885	152.814	7.444	45.251	258.536	24.282	784.212	100

Berriozarko Udala
1999-12-31ko egoeraren balantzea

AKTIBOA	Pezetak, milakotan	Euroak, milakotan	PASIBOA	Pezetak, milakotan	Euroak, milakotan
IBILGETUA	2.837.723	17.055	ONDAREA	2.387.005	14.346
Ibilgetu materiala	1.619.225	9.732	Ondarea	1.199.575	7.210
Lurrak eta ondasun naturalak	86.653	521	Aplikatzeko dauden emaitzak	1.187.430	7.136
Eraikinak	1.456.319	8.753			
Makineria, instalazioak eta tresneria	36.980	222			
Garraio-elementuak	16.715	101	KAPITAL-DIRULAGUNTZAK	129.544	779
Altzariak	10.650	64	Jasotako kapital-dirulaguntzak	129.544	779
Informazio-prozesuetarako ekipamenduak	8.286	50			
Bestelako ibilgetua	3.622	22	EPE LUZEKO ZORRAK	324.448	1.950
			Epe luzerako maileguak	324.448	1.950
Erabilera orokorreko ondasunak eta inb.	1.218.148	7.321			
Lurrak eta ondasun naturalak	1.218.148	7.321			
			EPE LABURREKO ZORRAK	89.094	535
Finantza-ibilgetua	350	2	Agindutako ordainketengatiko hartzekod.	26.675	160
Kotizazio ofizialik gabeko akzioak	350	2	Entitate publikoak	51.137	307
			Aurrekontuz kanpoko bestelako hartzekod.	3.545	21
ZORDUNAK	104.121	626	Betebeharrengatiko hartzekod.	7.124	43
Aitorturiko eskubideengatiko zordunak	73.891	444	Dirusarreraren itzulketagatiko hartzekod.	613	4
Entitate publikoak	28.045	169			
Beste hainbat zordun, aurrekontuz kanp.	2.185	13	APLIKATZEKE DAUDEN KONTUSAILAK	10.091	61
			Aplikatzeko dauden bestelako kontusailak	10.091	61
FINANTZA-KONTUAK	223.204	1.341			
Kutxa	127	1	EMAITZAK	224.866	1.351
Kreditu-erakundeak eta bankuak	138.184	830	Ekitaldiko emaitzak	224.866	1.351
Finantzaziorako aldi baterako inbertsioak	79.988	481			
Aplikatzeko dauden kontusailak	4.905	29			
ORDENA-KONTUAK	94.678	569	ORDENA-KONTUAK	94.678	569
Gordailuko baloreak	94.678	569	Gordailuko baloreak	94.678	569
AKTIBOA, GUZTIRA	3.259.726	19.591	PASIBOA, GUZTIRA	3.259.726	19.591

Berriozarko Udala
Diruzaintza-gerakinaren egoera, 1999-12-31
(pezetak, mllakotan)

	Zenbatekoak
1 (+) Ekitaldi-bukaeran kobratzeke dauden zordunak	184.109
Dirusarrera-aurrekontukoak. Indarreko aurrekontua	43.859
Dirusarrera-aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	65.946
Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketetakoak (*)	110.219
Ken kobratzen zailak diren saldoak	(35.915)
2 (-) Ekitaldi-bukaeran ordaintzeke dauden hartzekodunak	(89.095)
Gastu-aurrekontukoak. Indarreko aurrekontua	(24.050)
Gastu-aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	(9.749)
Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketetakoak	(54.682)
Dirusarrera-aurrekontukoak	(614)
3 (+) Ekitaldiaren bukaeran diruzaintzan diren fondo likidoak	138.311
4 Finantziazio atxikia duten gastuei atxikitako gerakina	240.917
6 Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina (1 - 2 + 3 - 4)	(7.592)
Diruzaintza-gerakina, guztira	233.325

(*) Barnean dago 79.988.000 pezeta inguruko zenbatekoa, finantzaziorako aldi baterako inbertsio bati dagokiona, baina diruzaintzako gerakinaren egoera-orrian erregistratu beharrekoa, "ekitaldi amaierako diruzaintzako funts likidoak" izenarekin.

VI. BERRIOZARKO UDALARI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

VI.1. 1999KO AURREKONTUAREN BETE-TZEARI BURUZKO IRUZKIN OROKORRAK

• Gastu eta diru-sarreraren 1999ko aurrekontuak 943 milioiko hasierako kredituak agertzen ditu; hasierako aurreikuspenak horiek baziren ere, zenbait aurrekontu-aldaketa egin dira, dirusarreraren arloan batez ere aurreko ekitaldiko diruzaintza-gerakina –169 milioi pezeta– eranstetik eta jasotako dirulaguntzetatik –66 milioi pezeta– heldu direnak. Gastuen aurrekontuan izandako aldaketek, berriz, inbertsio errealean kreditua 235 milioi pezeta handitzen dute.

• Behin betiko aurreikuspenek edo aurrekontu bateratuak, beraz, 1.178 milioi pezeta egiten dute, gastuetan nola dirusarreretan.

• Aitorturiko betebeharrak 784 milioikoak dira, eta horien betetze-maila ehuneko 67koa da; arrazoia da, nagusiki, inbertsio errealean kapituluaren betetze-maila oso bajua dela –ehuneko 43koa– hau da, aurreikusitakoa baino 346 milioi pezeta gutxiago–.

Inbertsio errealean kapituluaren gertaturiko desbideraketaren arrazoietan nagusiak hauexek dira:

	Pezetak, milioitan
E.R. sektoreko obra urbanizagarriak	40
Higiezinak eskuratzea	29
Kirol instalazioak	173
Berriozarko etorbideari zoladura ematea	49
Bestelakoak	55
Guztira	346

Obra gehienak 2000. urtean zehar egiten ari dira.

Ehunekoak erabilia, honako hau da gastuen aurrekontuaren osaera:

Gastuak	Ehunekoa
Funtzionamendukoak	63
Inbertsiokoak	33
Finantza-zamakoak	4
Guztira	100

Ikus daitekeenez, gastu-elementurik garrantzitsuena funtzionamendu-gastuek osatzen dutena da, eta horietan nabarmentzen dira bereziki langileen lansariak –ehuneko 38– eta inbertsio errealak, azken hauetara joaten baitira Udalak gasta-

tzen dituen 100 pezetatik 33, E.R. sektorearen urbanizazioaren kostu handia dela eta.

Langileriari dagokionez, 1999ko abenduaren 31n 74 langilek ziharduten lanean udalean:

Langileak	Zenbat
Funtzionarioak	33
Administrazio-kontratudunak	2
Lan-kontratudun finkoak	13
Behin-behinekoak eta programak	26
Guztira	74

Administrazio-kontabilitatearen arloan 6 pertsona aritzen ira lanean: idazkari 1, kontuhartzaille-diruzain 1, 4 administrari-ofizial eta 2 administrari laguntzaile.

Goi karguen –alkatea eta zinegotziak– lansariak 3,1 milioi egiten dute guztira eta 2. kapituluaren daude erregistraturik, zerbitzuagatiko kalteordain gisa. Alkatea funtzionarioa da, eta beraz bere lanpostuaren ezaugarrietan oinarriturik jasotzen du bere lansaria. Alkateak eta zinegotziek kalteordain gisa jasotako zenbatekoei ez zaie PFEZ atxikipenik egiten.

Aitorturiko eskubideei dagokienez, 773 milioikoak dira, ehuneko 66ko betetze-mailarekin. Horren arrazoiak dira, batetik kapital transferentzien kapituluak izan duen betetze-maila –367 milioi pezeta–ko aurreikuspena eta aitorturiko eskubideak 148 milioi pezeta dira. hau da, ehuneko 40ko betetze-maila–, eta bestetik, aurrekontuan egindako aldaketen ondorioak, 169 milioi pezeta diruzaintzako gerakinaren bitartez finantzatu baitira. Dirusarreraren aurrekontuaren betetze-maila hain txikia izateko arrazoia inbertsio errealean kapituluaren desbideraketak dira, lehen aipatu bezala.

Ehunekoen arabera, hauexek dira dirusarreraren aurrekontuaren osaera:

Diru-sarrerak	Ehunekoa
Tributuen bidezkoak	47
Transferentzien bidezkoak	34
Hirigintzako kuotak	18
Ondare bidezkoak	1
Guztira	100

Alegia, 1999ko aurrekontu bateratuaren finantzabide nagusia tributuen bidezko dirusarrerak dira –aitorturiko 100 pezetatik 47 finantzabide horretatik datoz–; transferentzia bidezko dirusarrerak, ordea, ehuneko 34 egiten dute.

Ondoko laukian jasotzen dira tributu-figura nagusiak eta horien zenbatekoa, 1999an aitorturikoa (pezetak, milioitan):

Tributu-figura	Zenbatekoa
Hirilur kontribuzioa	56
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	18
Lursailen balio gehikuntzaren gaineko zerga	22
Eraikin, instalazio eta obren gaineko zerga	136
Ibilgailuen zirkulazioaren gaineko zerga	30
Musika eskolaren tasa	11
Kirol instalazioen tasa	9
Irekitze-lizentziak	13
Hirigintza lizentziaren tasa	41

Nabarmenak dira eraikin, instalazio eta obren gaineko zergaren munta berariazkoa, 136 milioi pezetako zenbatekoa egiten baitu, hirilur kontribuzioarena ere, 56 milioi pezetarekin eta hirigintzako lizentziena, azkenik, 41 milioi pezetarekin, gainerrako tributu-figurak aise gainditzen baitituzte.

Udalak bildutako zergeri dagokienez, ondotik ageri dira Udalak zerga bakoitzean aplikatzen dituen tarifak, Toki ogasunei buruzko Foru Legeak baimendutako gehienekoen alderaturik:

Tributu-figura	Ehuneko/adierazlea	
	Udala	Toki Ogasunei buruzko Legea (1)
Hirilur kontribuzioa	0,32	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,4	1 - 1,4
Lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zerga	11	8 - 20
5 urte bitarte	3,4	2,4 - 3,4
10 urte bitarte	3,3	2,1 - 3,3
15 urte bitarte	3,3	2,0 - 3,3
20 urte bitarte	3,2	2,0 - 3,2
Eraikin, instalazio eta obrak	5,0	2,0 - 5,0

(1) 1999rako indarra zuen legeriari jarraikiz.

Udalak ez ditu ordainarazten luxuzko gastuen gaineko zerga ez eta etxebizitza hutsen gainekoa ere, egungo legeriaren arabera aukerakoak badira ee toki entitatearentzat.

• 1999ko betetze-egoerak 11 milioiko aurrekontu-defizita erakusten du. Emaizta hori aitorturiko eskubideen eta bete-beharren arteko aldearen ondorioa da. Saldo horretan finantzazio desbideraketatik eta gastuak diruzaintzako gerakin likidoaz finantzatzetik heldu diren doiketak eginez gero, 1999ko ekitaldiko aurrekontuko emaitza 8 milioi pezetako superabita da.

• 1999ko abenduaren 31n, ordaintzeko dauden zenbatekoek –gastuen erresultak– 89 milioi pezeta egiten dute, eta horietatik 24 milioi pezeta aurreko ekitaldi indardunetik heldu dira, 10 milioi aurreko ekitaldietatik eta 55 milioi aurrekontuz kanpoko eragiketei dagozkie.

• Kobratzeko dauden zenbatekoek –diru-sarreen erresultak– 184 milioi pezeta egiten dute, eta horietatik 44 milioi pezeta ekitaldi indardunetik heldu dira, eta 66 milioi aurreko ekitaldietatik. Gainerakoak aurrekontuz kanpoko eragiketei dagozkie.

• 1999ko abenduaren 31n, diruzaintza-gerakina 233 milioi pezetako da. Kopuru hori honako honen emaitza da: kobratzeko dauden eskubideak –184 milioi pezeta–, ordaintzeko dauden bete-beharrak –89 milioi pezeta– eta funts likidatuak –138 milioi pezeta–. Aurreko ekitaldietatik kobratu gabe heldu diren 66 milioi pezeta horietatik 36 milioi pezeta kobratzen zailtzat jotzen dira.

Aurreko ekitaldietatik heldu diren saldoak kobratzen zailtzat jotzeko Udalak dituen irizpidea honako hau da:

Zorraren antzintasuna	Dotazio ehunekoak
1995 eta aurrekoak	100
1996	60
1997	50
1998	30 (*)

(*) Transferentziak kontuan hartu gabe.

Udalak irizpide hau hartu du ordainketan atzeratzen direnei berriz ordainarazteko prozesuan izandako esperientzia kontuan harturik. Prozesu hori dirubilketarako agentzia batek betetzen du egun.

• Azkenik, ondoko taulan erakusten da, ehunekoak erabiliz, 1999ko gastu-aurrekontuaren betetzea, eginkizun ezberdinen arabera sailkatua.

Deskribapena	Ehunekoak
Zor publikoa	4
Gobernu organoak	1
Administrazio orokorra	8
Segurtasuna eta babes zibila	5
Segurtasuna eta babes soziala	9
Gizarte-sustapena	1
Osasuna	1
Hezkuntza	10
Etxebizitza eta hirigintza	41
Komunitatearen ongizatea	4

Kultura eta kirola	12
Bestelako zerbitzuak	1
Araupetze ekonomikoa	3
Guztira	100

Horien azterketa egin ondoren, hauxe azpimarratuko dugu:

Udalaren 1999ko gastuaren ehuneko 72 honako hauetarako da: etxebizitza eta hirigintza; hezkuntza; kultura eta kirola; segurtasuna eta gizarte babesa.

Etxebizitza eta hirigintza ren kapituluak duen garrantzia Udalak 1999ko ekitaldian zehar E.R. sektorea urbanizatu izanaren ondorioa da.

VI.2. FINANTZA-EGOERA 1999ko ABENDUAREN 31n.

Ondoko taulan 1999an Udalak dauzkan ratio edo adierazleak ageri dira, aurreko ekitaldikoekin konparatuta:

Adierazleak	1999 ⁽¹⁾	1998 ⁽¹⁾⁽²⁾
Aurrekontu-superabita (defizita) (pezetak, milioitan)	(11)	244
Bizt. bakoitzeko dirusarrerak (pezetak)	135.078	211.156
Biztanle bakoitzeko gastuak (pezetak)	136.980	165.974
Bizt. bakoitzeko finantza-karga (pezetak)	5.542	6.656
Bizt. bakoitzeko tributu-dirusarrerak (pezetak)	64.049	56.256
Kobrantsen betetzea (ehunekoa)	76	78
Ordaintzen betetzea (ehunekoa)	67	61
Zorpetze-maila (ehunekoa)	5	7
Zorpetze-muga (ehunekoa)	21	15
Aurrezpen garbia (ehunekoa)	16	8
Langileria-indizea (ehunekoa)	38	31
Inbertsio-indizea (ehunekoa)	33	44
Dirulaguntzekiko menpekotasuna (ehunekoa)	52	36

(1) Kalkulatzeko, 1998rako 5.412 biztanleko kopurua hartu da, eta 1999rako 5.725 biztanlekoa, Udalak kopuru hori kalkulatzen baitu 1999ko urtarrilerako.

(2) Fiskalizatu gabeko ekitaldia.

Eginiko azterketatik, hauxe azpimarratzen dugu:

- 1999ko ekitaldian garrantzizko aldaketa gertatu da aurreko ekitaldiarekiko, 244 milioi pezetako superabita izatetik 11 milioiko defizita izatera pasatu delako. Arrazoia da, batez ere, 1998an inbertsio errealak besterentzeagatik dirusarreraren kopurua handia izan zela, 355 milioi pezetako, zehazki.

- Biztanleko dirusarrerak ehuneko 36 jeitsi dira, baina gastuak ehuneko 17 jeitsi dira, eta horrek ere azaltzen du Udalak 1999an izan duen defizita.

- Tributuen bidezko diru-sarrerak, biztanle bakoitzeko, ehuneko 14 igo dira, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga igo delako.

- Biztanle bakoitzeko finantza-zama ehuneko 17 jeitsi da, batez ere biztanle kopurua igo delako, interes tasak jeitsi direlako eta badelako 60 milioi pezetako mailegu bat, gabezia aldia duena, eta finantza zama areagotuko duena hurrengo ekitaldian.

- Aurrekoa zorpetze mailan islatzen da, 1999an ehuneko 5ekoa baita, eta aurreko ekitaldiko, berriz, ehuneko7koa izan zen.

- Aurrezki garbiaren ehunekoa 8tik –1998an– 16ra –1999an– igo da, horrek esan nahi du Berriozarko Udalak aurre egin ahal izan diela funtzionamendu gastuei eta finantza zamari baliabide aruntak bitartez.

- Langileria adierazleak gora egin du, langileria gastuak ehuneko 7 handitu direlako, langile berriak kontratatu direlako. Bestalde, langileria gastuen ehunekoa handiagoa da osoarekiko, langile berekiekin egindako inbertsio errealak jeitsi egin direlako, eta horrek, bere aldetik, isla du inbertsioaren adierazlearen jeitsieran.

- Dirulaguntzekiko menpekotasuna handitu egin da, inbertsio errealak besterentzeagatik dirusarrerak nabarmen murriztu direlako, eta horren eraginez, transferentzien ehunekoa aitorturiko eskubide guztiena baino altuagoa da.

1999ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokionez, hona azalpena (pezetak, milioitan):

Adierazleak	1999
Diruzaintza-gerakina	870
Epe luzeko zorra	114

Hau da, gastu orokorretarako diruzaintza gerakinak epe luzerako zorretik heldu diren finantza premien ehuneko 95 eta beraz garrantzizko finantzabidea da.

Berriozarko Udalak 1999ko abenduaren 31n dituen finantza pasiboaren xehetasunak hauexek dira (pezetak, milioitan):

Entitatea	Destinoa	Ordaintzeko dagoen zorra	Muga-epea	Interes-tasa
Caja de Ahorros Navarra	Birfinantzazioa eta igerilekuak	170	2006	Mibor+1
Banesto	Eguzki plazako lanak	60	2005	Mibor+0,15
Nafarroako Gobernua	Banaketa kontuaren gerorapena	14	2005	2%
Guztira		244		

Aurrezki gordina joan zen urtean 77 milioi pezetakoa izatetik 1999an 131 milioi pezetakoa izatera pasatu da. Igo bada ere, gastuen eta dirusarren bilakaeraz lehen aipatu dugunaren arabera, gure ustez Berriozarko Udalak arazoak izanen lituzke finantza zor horri aurre egiteko adinako baliabide arrunta sortzeko. Udalak saiatu beharko luke bere baliabide arruntak handitzen edo funtzionamendu gastuak jeisten zor horri erantzuteko.

Banco Español de Crédito entitatearekin dagoen mailegua gabezia aldian dago eta hori Udalaren aurrezkiaren kalterako gertatuko da etorkizuneko ekitaldietan, eta egoera hau larriagoa bihurtuko.

Azkenik, hurrengo taulan, Berriozarko Udalariburuzko 1999ko informazioa eta Nafarroan biztanle-tarte berean dauden beste udal batzuetako 1997rako batez bestekoa ⁽¹⁾ alderatuta agertzen dira, zenbait ratoriori dagokionez:

Ratioak	Nafarroako T.E. 1997 (5.000-10.000 bizt.)	Berriozar 1999
Gastu arrunta/biztanle (pezetatan)	64.078	87.580
Dirusarrera arrunta /bizt. (pezetatan)	94.874	109.208
Tributu dirusarrera/biztanle (pezetatan)	58.560	64.049
Zorpetze-muga (ehunekoa)	35	21
Zorpetze-maila (ehunekoa)	7	5
Zorpetze-ahalmena (ehunekoa)	28	16

Alderaketa horrek dituen mugak kontuan izanik⁽²⁾, hauexek dira gertaera esanguratsuenak:

- Gastu arrunta eta diru-sarrera arruntak neurri bereko udalek 1997an zituzten batez bestekoak baino handiagoak dira.
- Tributu arloko diru-sarrerak, biztanleko, batez bestekoa baino 5.000 pezeta handiagoak dira.
- Berriozarko Udalaren zorpetze-ahalmena populazio tarte bereko udalen babes bestekoa baino txikiagoa da. Hurrengo urteetan arazoa larriagotuko da, Udalak 1999ko abenduaren 31n zuen finantza-egoeraz lehen adierazi duguna dela-eta.

VI.3. GORABEHERAK

Udalak emandako informazioaren arabera, honako hauek dira ebazteke dauden errekurtsio nagusiak:

- Administrazioarekiko errekurtsioa, partikular batek aurkeztua, 23 milioi pezetako kalteordain baten inguruan igerilekuetan gertaturiko istripu baten ondorioz kalte eta galerak zirela-eta. Une hauetan kasazio errekurtsioa ebazteko dago Auzitegi Gorenean.

- Administrazioarekiko errekurtsioa, partikular batek aurkeztua, Udalaren Osoko Bilkurak 1996ko abenduaren 13an hartutako erabakiaren kontra, E.R. sektore birzatatze proiektuaren kontra. Ebazteko dagoen balizko kalteordaina 23 milioi pezetakoa da.

- Administrazioarekiko errekurtsioa, partikular batek aurkeztua, Udalaren Osoko Bilkurak Zortziko plan partziala 2. fasean birzatatze proiektuaren inguruan hartu zuen erabakiaren kontra. Une hauetan ebazteko dago balizko kalteordaina, 29 milioi pezetakoa.

- Administrazioarekiko errekurtsioa, sozietate batek aurkeztua Udalak arau subsidiarioen R-6 unitatearen konpentsazio proiektuaren inguruan 1994ko maiatzaren 31n hartutako erabakiaren aurka. Kasazio errekurtsioa Auzitegi Gorenak ebazteko dago, eta balizko kalteordaina 11,6 milioi pezetakoa da.

- Administrazioarekiko errekurtsioa, Iberdrolak aurkeztua Udalaren Osoko Bilkurak 1997ko irailaren 24an instalazio elektrikoaren gastuen inguruan hartutako erabakiaren kontra. Eskatzen den zenbatekoa 54 milioi pezetakoa da.

VI.4. KONTRATAZIOA

Udalak emandako informazioaren arabera, Udaleko idazkariak antzeman dituen ez-legezko-tasun zantzu nagusiak hauexek dira:

- Berriozarko kontsumitzaileendako argibide eta aholkularitza zerbitzua kontratatzean ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legean ezarritako publikizitate eta lehiakortasun printzipioak ez dira bete.
- Bi erraldoiren erosketa egiteko kontratazioan ez ziren bete publikizitate, berdintasun, objektibotasun eta lehiakortasun askearen printzipioak, ekai-

(1) Datu hauek Toki Administrazioiko Departamentuak emandakoak dira, eta Ganbara honek Toki Sektore Publikoari buruzko 1997ko txostenean eman zituen argitara.

(2) Gogoraten dugu, bereziki, zerbitzu publikoak emateko modua eta kalitatea.

naren 16ko 10/1998 Foru Legeak eskatu bezala, eta zuzenean adjudikatu zen erosketa Udalaren Osoko Bilkuraren erabaki baten bidez.

- “Berriozarko taldeak” izeneko disko konpakto baten kontratazioa ez-legezkoa izatea. Zenbait alderdiri dagokio: kontratua zerbitzua egin ondoren prestatu zen, eta bestalde, zerbitzuan aldaketak izan ziren, ondoren zerbitzua bete zuen enpresari baizik jakinarazi ez zitzaizkionak.

- 4,4 milioi pezetako balioa zuen eskultura baten adjudikazioa ez-legezkoa izatea, zuzeneko adjudikazioaren bitartez egin baitzen, adjudikazio prozesu hauetan eskatzen diren zehaztapenak bete gabe.

- Lanpostuko osagarriari ehuneko 3ko igoera lineala aplikatzeko Udalaren Osoko Bilkurak hartu zuen erabakiaren ez-legezkotasuna, legeek ezartzen baitute igoera horiek lanpostu bakoitzaren ezaugarri berezietan oinarrituta onartu behar direlako.

Bestalde, kontratazio espediente hauek aztertu ira, urte bat baino gehiagoko aurrekontuei egozkiak badira ere.

Espedientea	Adjudikazio prozedura	Pezetak, milioitan (*) 1999ko aurrekontua
E.R. sektorearen urbanizazioa (2. fasea)	Lehiaketa	146
Higiezin erosceta	Enkantea	35
Kirol instalazioa	Lehiaketa	-

(*) Barne dira, kasua denean, lansari teknikoaren kostua, obraren gain.

Aztertutako espedienteek kapitulu honetan 1999. ekitaldian izandako obligazioen ehuneko 77 egiten dute.

Aztertutako espedienteen alderdi aipagarrienak hauexek dira:

E.R. Sektorearen urbanizazioa (2. fasea)

Udalerrian etxebizitzak sustatzeko urbanizazio lanak dira. Aurreko ekitaldietan urbanizazioaren lehendabiziko fasea egin eta 1998an burutu zen. Urte hartan bertan ekin zitzaion bigarren fase honetako urbanizazioari. Hona laburpena (zenbatekoa pezetatan, milioitan):

	1. fasea	2. fasea
Adjudikazio zenbatekoa	481	221
Behin betiko zenbatekoa	513	(*)
Desbideraketa	32	(*)

(*) Ez dago informaziorik.

Behin betiko zenbatekoak barne hartzen du goi-tentsioko kablearen lanak, aurreikusi gabek, handitzea.

Obrak unitate bakoitzeko lurzatien jabeek ordaindutako urbanizazio kuoten bidez finantzatzeko dira. Horri dagokionez, 1998 eta 1999. urteetan, hurrenez hurren, 160 eta 136 milioiko dirusarrerak erregistratu dira.

Higiezin erosceta

Udalaren herrilaren arloak erabili beharreko lokal baten erosketa, zehazki.

Kirol instalazioak

Igerileku estalia eraikitze lanak dira. 1999an adjudikazio prozedura gauzatu da, baina ekitaldi horretan obrak ez du betebeharrak aitorturik eragin.

1998ko ekitaldian, Udalak zenbait lurzati besterendu zituen, eta 278 milioi pezeta inguru lortu; zenbateko hori aipatu obrari atxiki zion Udalak.

Obra horren espedientea 1999. urtean tramitatu da, eta obra egitea 155 milioi pezetan adjudikatu da (BEZ barne)

Espedienteak aztertuta, administrazio kontratazioa arautzen duen arau indardunak behar bezala bete direla ikusi dugu, bai eta espedienteen jarraipena ere, administratiboa zein kontabilitatekoa.

VI.5. BESTELAKO KUDEAKETA-GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, Ganbara honen aburuz Udalak jarraitu behar dituen gomendio nagusiak, bere antolamendu, prozedura, kontabilitate-eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

Zenbait alderditan, aipatutako gomendioak ezarriko daude edo 2000eko ekitaldian ezartzen ari dira.

VI.5.1. Antolamendu orokorra.

Honakoa gomendatzen dugu:

- *Barne Araubideari buruzko Erregelamendu baten prestaketa aztertzea, bertan zehaztu eta banatzeko Udalaren organo exekutiboaren eskumenak.*

- *Urteko oroit-idazkia prestatzea, finantza-egoeraren beste orri bat balitz bezala, eta Kontabilitate Publikoaren plan orokorrak adierazten duen moduan.*

- *Idatziz egitea kudeaketarako oinarrizko prozedurak, eta horiek betetzeko faseetarako ardura -dunak ezartzea.*

VI.5.2. Inbentarioa-lbilgetua

Honakoa gomendatzen dugu:

- *Udal ondasunen eskrituratze eta erregistratze prozesua osatzea, ondasun horiek jabari publiko -koak izan zein ondarekoak edo herri ondasunak izan.*

- *1995eko udal inbentarioa gaurkotzea eta onestea.*

- *Udal inbentarioa etengabe gaurkotzea eta kontabilitatearekin lotua egotea ahalbidetuko duten prozedurak taxutu eta aplikatzea.*

- *Altak eta bajak kontabilizatzeko prozedurak definitu eta ezartzea, eta ibilgetuaren dokumenta -zioa artxibatzea kontu horiei aplikatzekoak zaiz -kien kontabilitate-irizpideei jarraituz.*

- *Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak berrikusi eta depuratzea, behar bezala azal ditza -ten Udalaren ondasunak.*

VI.5.3. Langileria

Honakoa gomendatzen dugu:

- *Nominen laburpenetan hileko ordainsari guz -tiak, finikitoak barne, ager daitezen behar den informazioa egokitzea.*

- *Modu linealean ezarritako lanpostuko osaga -rria legeak dioen modukoa izan dadin behar diren prozedurak ezartzea.*

VI.5.4. Hornidurak erostea eta zerbitzu emateak

Honakoa gomendatzen dugu:

- *Idatziz azaltzea aplikatu den erosketa prozedura, eta aholkularitza juridikoak eta udal kontuhartzaitzak bete beharreko lana berariaz zehaztu.*

- *Horniduretarako gastuen kapitulu ekonomikoan behar den desglosea ezartzea hor sartzen iren kontzeptuen kontrola (ura, argia, telefonoa, eta abar) hobea izan dadin.*

VI.5.5. Tributuen bidezko diru-sarrerak, tasak eta prezio publikoak

- *Urtean eginiko kirol ikastaroengatik jasotako dirusarreraren integritatea kontrolatzeko behar diren prozedurak taxutu eta sistematikoki aplikatzea gomendatzen dugu.*

VI.5.6. Alderdi orokorrak

Honakoa gomendatzen dugu:

- *Aurrekontuko aldaketen espedienteak aldatzeko gertatzen diren unean osatzea, kontabilizatu, txostena eman eta onesteko faseen artean denbora arazorik gerta ez dadin.*

- *Aurrekontuz kanpoko eragiketen (V.I.A.P.) egoera soiltzeko behar diren prozedurak ezartzea.*

VI.6. HIRIGINTZA

VI.6.1. Alderdi orokorrak

Berriozarko Udalarentzat egun indarra duen araudia 1991ean onartutako arau subsidiario bat da.

Lehenago eta behin aipatu behar dugu araudi hori bat datorrela hirigintza arloko egungo legeriarekin, salbu eta lagapen eskubidean, Udalak ehuneko 15ekoa dela ezarririk duelako, arauk ezarritakoa ehuneko 10ekoa izanik.

Gaur egun, Berriozarko Udala aztertzen ari da araudi berria egiteko aukera, udalerrian izan diren aldaketak direla-eta.

Araudi hori irakurrita, hauexek dira alderdi funtsezkoenak:

- Herri zaharraren kokagunea paisaiaren ikuspuntutik hartua dago, eta ez du garatzerik hirigintzaren aldetik, familia bakarreko etxebizitza batzuen sustapena kenduta.

- Berritzat jo daitekeen eremu berria ia erabat garaturik dago 1991eko araudiari dagokionez.

Hauexek dira helburu nagusiak:

- Udalaren parte hartze aktiboa ekipamendu, berdegune eta eraikuntzarik gabeko guneak garatzeko, Berriozarko hiri antolamendua eta paisaia hobetzeko.

Udalak etorkizunean garapena bidera lezaketzen hirigintza aldaketak planteatzea, gaur egun dagoen lurzoru urbanizagarriaren gabezia kontuan hartuta.

Helburu orokor horiek populazio-gune bakoitzaren kasuan zehazten dira.

Lurzoruaren kalifikazioari dagokionez, exekuzio unitate hauetan egin daiteke sailkapena:

- R1, R2, R3, R4 eta R6 sektoreak, erabat garatutako lurzoru urbanizagarriaren 75.000 metro karraturekin, R4 eta R6 sektoreei dagokionez.

- R5 sektorea, egun garatzen ari da, Berriobeitiko Udalarekin batera, 124 etxebizitza kolektibo eta 84 familia bakarreko etxebizitza sustatzeko. 20.000 metro karratu hartzen du eta 1000 biztanle gehiago, gutxi gora behera ekarriko du.

- Zortziko Plana, eraikuntzako fase txiki bat besterik ez da falta.

- E1, E2, E3, E4, E5 eta E6 guneak, ez-urbanizagarritzat sailkatutako lurzorua dutenak. Gune hauetako batzuk birkalifikatzeko daude, aurrerago garatu ahal izateko.

VI.6.2. Azterlan ekonomiko-finantzarioak/ Jarduketa programak

Udalak ez du idatzizko agiririk azterlan ekonomiko-finantzarioen berriazko jarraipenaz, ez eta jarduketa programen betetze mailaz ere.

VI.6.3. Planeamenduaren garapena eta betetzea

Egungo egoeraz aipatutakoaren ondorioa da 1991eko araudi subsidiarioa erabat garaturik dagoela eta Berriozarren hiri eraldakuntza handia ekarri du. Garapen horri esker nolabaiteko konponbidea eman zaio Udalak hiri garapenaren esparruan zuen gabeziari.

Hiri lurzoruaaren etalurzoru urbanizagarri antolatuen planeamendurako garapena gauzatzen ari da unitate bakoitzerako xehetasun azterlanen edo eraikuntza proiektuen bidez. Gainerako unitate urbanizagarrien kasuan, garapena plan partzialen bidez egiten da.

Hirigintzako araudi subsidiarioaren aldaketak etengabe gertatu dira 1991eko araudiarekiko. Aldaketaren prozedurak gai horretan ezriritako legezketasunarekin bat gauzatu dira.

VI.6.4. Kontabilitate eta hirigintzako betebeharrak

Udalak ez du eratu lurzoruaaren udal ondarea, eta horrez gain, ondare horretatik lortutako baliabideak ez zaizkio hura gorde, mantendu eta handitzeari atxiki.

VI.6.5. Hirigintzako kudeaketa

Hirigintzako planeamenduaren kudeaketa eta tramitazio teknikoak udal arkitektoak egiten ditu.

Azkenik, esandako guztien ondorioz honako gomendio hauek ematen ditugu:

- *Hirigintzaren arloan oro har ezarritako betebeharrak betetzea.*

- *Jarraipen egokia egitea, azterlan ekonomiko-finantzarioak eta jarduketa programak noraino bete diren jakiteko.*

- *Hirigintzako administrazio espediente guztiak hurrengo helburuak lortzeko behar den dokumentazioa izan dezaten ahalegintzea:*

a) *Gardentasuna eta publizitatea bermatzea.*

b) *Erabakiak behar adina txosten teknikoren babesarekin hartzea.*

c) *Guztien/gizartearen interesa behar bezala justifikatzea.*

- *Udalaren barne kontroleko zerbitzuek –idazkaritzak eta kontuhartzaitzak– hirigintzako espedienteen tramitazioan bete beharreko papera zehaztea.*

VII. ERAKUNDE AUTONOMOAK

Oro har, ohartu garenez, patronatuek kudeatzen dituzten aurrekontuen zenbatekoak ez dira oso handiak eta, Kirol eta Kultura Patronatua eta Musika Eskola badira ere, Udalak aurrekontu bakar bat kudeatzen du, eta bertan patronatuak kode organiko baten bitartez bereizten dira.


Erakunde autonomo horien egiazko autonomia maila zehaztea gomendatzen dugu, eta halaber, aztertzea horiek udal zerbitzu deszentralizatu bihurtzeko aukera, kudeaketaren eraginkortasun, efikazia eta kontrol irizpideekin.

Auditore Francisco Javier Sesma Masa jaunak proposatuta eman da txosten hau, berau izan baita arduraduna, indarreko arauak ezarritako izaipideak bete ondoren.

Iruñean, 2000ko irailaren 28an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

I. ERANSKINA. BERRIOZARKO UDALAREN ORGANIGRAMA, 1999KO PLANTILLA ORGANIKOAREN ARABERA:



(1) Familia Plangintzako Udal Zentroa

(2) Kultur eta Kirol alorrera eta Musika Eskolara

(3) Bjarreko langile batekin beletako eszedentzia

(LH) Lanpostu hutsa

(TMLH) Txanda murriztutako lanpostu hutsa

F = Funtzionarioak

AL = Aldi baterako lan-kontrataduna

LFLP = Lan-kontratadun finkoa lanaldi partzialarean

ALLP = Aldi baterako lan-kontrataduna lanaldi partzialarean.

Es. = Eszedentzia

AB = Administrazio araubideko bitarteko langilea

II. ERANSKINA. ERABILITAKO ADIERAZLEEN DEFINIZIOA

- Diru-sarrereren betetze-maila = $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Gastuen betetze-maila = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Kobrantzen betetzea = $\frac{\text{Kobrantzak, guztira}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Ordainketen betetzea = $\frac{\text{Ordainketak, guztira}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Zorpetze-maila = $\frac{\text{Finantza-zama (3. eta 9. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak (1-5 kapit.)}} \times 100$
- Zorpetze-muga = $\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. gastuak (1,2 eta 4. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$
- Zorpetze-ahalmena = Muga- zorpetze-maila
- Aurrezki garbia = $\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. eta finan. gastuak (1- 4 eta 9. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$
- Langileria indizea = $\frac{\text{Langileen aitorturiko betebeharrak}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Inbertsio-indizea = $\frac{\text{Inbertsio gastuak (6 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Diru-laguntzekiko menpekotasuna = $\frac{\text{Transferentziengatik aitorturiko eskubideak (4 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Diru-sarrerak biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastuak biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastu arruntak biztanle bakoitzekoko = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak (1-4 kapit.), guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Presio fiskala edo tributu bidezko diru-sarrerak biztanleko = $\frac{\text{Tributu bidezko diru-sarrerak (1, 2 eta 3. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Finantza-zama biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Finantza-zamak (3 eta 9. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

